TXINPARTAK

25. ALEA 2012 NEGUA

BURDINOLAko berriak
Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos del Museo del Hierro de Legazpi

LA CASA AGUIRRE-ECHEVERRI

Arg: Mertxe Urkiola

ILLORRAK. Gure herri-arkitektura ahaztuetara gerturatzen…….3
PASADO Y FUTURO DE AGUIRRE-ECHEVERRI……....15
PEQUEÑA HISTORIA DE LA IKURRIÑA EN LEGAZPI……16
MENDI-MARTXAK GURE INGURUAZ HARRO SENTIARAZTEN GAITU…...…20

EDITORIALA

Krisi ekonomikoaren ondorioak gero eta nabariagoak dira bazterretan, eta Burdinola elkartearen ateetara ere etorri da, halabeharrez. Udan jaso genuen gutuna Gipuzkoako Foru Aldunditik adieraziz garai beltzak bizi ditugula eta, 2012. urtean ez genuela sosik jasoko. Atzean geratu dira, antza, oparotasun urteak eta dagoeneko ez dago eskupekorik. Lehen galtzailea, ohi denez, kultur arloa.

Kolpe handia bada ere, Burdinola elkarteak hor jarraitzen du eta hor jarraituko du, zorionez euskarri bat baino gehiago dituelako. Hauexek: Legazpiko Udalaren diru-laguntza eta babesa; bazkideen diru-saria; eta, azkenik, hainbat bazkide eta kolaboratzaileren ordaingabeko laguntza. Baditugu, hortaz, aurrera egiteko tresnak eta denak erabiltzeko gertu gaude, gure irudimena, gogoa eta indarrak agortu arte. Gogoratu behar dugu, gainera, Burdinola elkartea 1990. hamarkadako krisialdian jaio zela duela 19 urte (2013. urtean beteko ditugu 20) eta badakigu, nolabait, garai ilunei ere etekina ateratzen.

Hala, 2012. urtea ez da, emaitzei dagokionez, urte txarra izan. Hauek izan dira burututako ekitaldiak: martxoa eta apirileko mahai-inguruak; Izadi-Zaleak elkartearekin Zegamako Aitzondora egindako ibilaldi didaktikoa; autobusez egindako bi ibilaldiak (bata, Iparraldera eta bestea, Mutrikura); San Migel ermitan egindako kontzertua eta erakusketa; Aizkorrin Barrena mendi martxa; Aizkorriko Burnikurutz tontorrean kokatuko den burdinezko gurutzea egitea; Txinpartak aldizkariaren urteroko bi aleak argitaratzea; Eibarko Badihardugu elkartearekin "Legazpiko Ahotsak" egitasmoa lantzea; Armen Alardeko bileretan parte hartzea; Goierriko etnografia eta euskara jasotzeko ikerketak egitea; eta abar.

Bistan denez, elkartearen jarduera ez da gelditu eta badoa. Hala ere, guztia hobetu daiteke eta ez dugu horretarako itxaropenik galtzen. Kulturgintzaren garai berriak ate joka datoz eta irekita gaude etor daitekeen edozein proposamen edo aldaketa aztertzeko eta, horren ondorioz, gure ibilbidea aldatzeko ere.

Las consecuencias de la crisis económica son cada vez más patentes en nuestro entorno, y han llegado ya hasta las puertas de la asociación Burdinola. En verano recibimos una carta de la Diputación Foral de Gipuzkoa donde se nos indicaba que este año no habría subvención debido, entre otras cuestiones, a la bajada de recaudación de dicha institución. Han quedado atrás los años de abundancia y se acabaron las limosnas. Como siempre, la primera perdedora, la cultura.

A pesar del golpe, Burdinola sigue y se reafirma en sus objetivos, ya que por suerte disponemos de más apoyos, como son las subvenciones del ayuntamiento de Legazpi, las cuotas de los socios y socias, y la desinteresada ayuda de sus socios/as y colaboradores/as. Utilizaremos todos los apoyos que se nos presenten en el camino con tal de avanzar, mientras tengamos imaginación, ganas y energía. No debemos olvidar que Burdinola nació en plena crisis de los 90 hace ya 19 años (cumpliremos 20 el año 2013) y que ha logrado superar muchas dificultades.

Con todo, el año 2012 no ha sido tan malo en cuanto a resultados, como revelan las actividades realizadas. Podríamos citar las siguientes: las mesas redondas de marzo y abril; la excursión didáctica realizada con la asociación Izadi-Zaleak; las excursiones realizadas en autobús (a Iparralde y a Mutriku); el concierto y la exposición de la ermita de San Miguel; la marcha montañera Aizkorrin Barrena realizada en setiembre; la realización de la cruz de hierro que se colocará en Burnikurutz; la publicación de los dos números anuales del Txinpartak; la realización del proyecto "Legazpiko Ahotsak" con la asociación Badihardugu de Eibar; participación en las reuniones del Alarde de armas; recogida de léxico y etnografía del Goierri; etc.

Como salta a la vista, la asociación no ha dejado de funcionar y prosigue con sus actividades habituales. Sin embargo, estamos convencidos que podemos mejorar y mucho. También somos conscientes de que vienen nuevos aires en el ámbito de la cultura, por lo que estamos abiertos a estudiar cualquier propuesta o cambio que se nos plantee y, consecuentemente, a cambiar de rumbo, si fuese necesario.

BURDINOLA ELKARTEA
Latxartegi 10, behea. 64. p.k. 20230 Legazpi
Tel: 943034071 burdinolaelkartea@gmail.com

ILLORRAK
Gure herri-arkitektura ahaztuetara gerturatzen

Egilehorrak, Legazpi aldean "*íllorràk*" deituak, gure muino eta mendi barrenetan agertzen diren eraikuntzak dira. Gela bakarreko eraikuntza izaten da egilehorra, batzutan sabaia duena eta normalean sarrera ireki bat izan ohi du, ganadua sar dadin. Egilehorrek, oraindik ere, ondare aberatsa osatzen dute Legazpin eta herri-arkitekturaren adierazgarri onenetarikoa da.

Izendapenak

Legazpin "*íllor*" izenak indarra du oraindik, edo behintzat hala dirudi geuk ikertu ditugun kontestuetan. Legazpin "*illor*" esaten denean, eraikuntza oso jakin bat aipatzen da. Izan ere, Legazpin "*illorra*"/"*artzai txabolea*"[1] bereiztu egiten dira. Egilehorra, abereen babeslekua da, beste ezeren aurretik. Artzain txabola berriz, artzaina mendian den sasoian duen bizilekua da.

Dena dela, gauza bitxia da "egilehor" hitzarekin gertatu dena. Izan ere, izendapen hau Goierriko herri askotako toponimoetan agertzen zaigu: Ataun, Ezkio, Idiazabal, Segura, Zaldibia, Zegama...[2]. Baina bestetik, Ursuaran, Idiazabal eta Zegama aldean, Legazpin "*illor*" esaten zaionari, "*saletsea*"/"*saletxea*" esaten zaio. Eta auzia korapilatzeko, Ursuaran aldean "*illor*" hitzarekin aipatzen dena, beste kontzeptu bat da:

"*Eillorra azpin daun txabola zea txiki bat, eta egilleor, eillorra ura, ari esaten giñun. Eta ura san an arditako, eoten tzien. Gauza, traste batzuk gordetzeko, saskik eta geo zeakiñ. Ola, erail, gutxi erabil bear zien gauzak gordetzeko. Ta ari, eillorra, eillorra, beti eillorra esaten diu guk. Bai. Ori kontra, bean kontra indako olako zea bat, estalpe txiki bat*"[3].

Era berean, eraikuntza jakin bakoitzak ere bere izena du. Eraikuntza jakinaren izena emateko, bi bide jarraitzen dira. Eraikuntza norbere baserrikoa denean, -jabetza sistemaren arabera, egilehorra lursailari lotua dagoelako-, honela izendatzen da: <<lekuaren izena + "illorra" hitza>>. Horrela, gure baserriari lotutakoak "*Antxerdiko illorra*"eta "*Aierdiko illorra*" dira; Antxerdi (Antxigardi) eta Aierdi, parajeak dira.

Bestetik, egilehor baten jabetza auzoko baserri batena denean, honela jokatzen da: <<baserriaren izena + "illorra" hitza>>[4]. Horrela esate baterako, Aierdi parajean dagoen egilehor batek "*Araiztiko illorra*" izena dauka. Egilehor hori Aierdi parajean kokatua badago ere, Telleriarteko baserri horren izena hartzen du izendapentzat.

Erabilpenak

Egilehorren erabilpen nagusia, abereen aterpe izatea da. Eta hau era askotara burutzen da, izan ere babes funtzio hau oso zabala eta anitza da. Alde batetik, neguko ardilekua izaten daiteke; horrela zen Zepadiko egilehorra:

"*Ura ardik eukitzeko, negun'e bai. An'e, zelaie're bazan, enda bedarra ondu itten tzan, eta ango aittonak ba zeuken ganbara bat einda eta ará sartzen tzon bedarra. Enda negun, ba edurre, oin baiño geiao eitten tzon, da antxe eoten tzien. Eamaten tziten igual ba bizkarren artu zakun da arbie. Arbie txikitu, eta bedarra jarri artxaratan, artxaratan, da bedarran gaiñen, arbie. Txikitutako arbi ori, ola, dana zabaltzen tziten, enda geo pixkat kanpoa're etatzen tzien ardi orik, ba egarrie're eukitzen tzuen, nola barrun oten tzien da edur pixkat-o. O bistan balin mazeon lárre mat-eo, ola pixkat jan'e eitten tzuen, o errekatxon mat balin mazeon ingurun ba, ala zan gaiñea, ta an ur pixkat eran nai bazuen, da geo barrua berriz'e. Edurretan ezin zeikelako ibili, ola*"[5]

Zepadiko egilehorra. Egilehor honetan pasatzen zuen negua artalde batek, etnotestuan agertu den eran. (AA, 2005-05-02)

Ardiak Antxerdi (Antxigardi) parajeko egilehorretako batean. (AA, 2009-05-30)

Behorra Aierdiko egilehorrean sartzen, eguneko ordu beroetan gerizpean egoteko. (AA, 2012-08-07)

Isuri bakarreko egilehorra, Brinkolan. (AA, 2012-05-27)

Pasarte honen irakurketa zehatz batek zera argitzen digu: ardi hauek gizakiaren beharra dutela bizirauteko, paraje horretan ez delako neguan beraientzako elikagairik. Horrela, belar ustiaketa bat antolatu behar da, belar ondua ardiek neguan jangai izan dezaten. Baina bestetik, baserri bertatik arbi zakuak bizkarrean egilehorrera igo behar, ardiak hobe elikatzeko. Hasiera batean, neke handiegiko lana ematen du, baina segituan ikusiko dugu nekazal gizarte batean honelako jokabidea oso errentagarria dela.

Bestetik, udako ordu beroenetan, egilehorra abereen aterpe izan daiteke, besteak beste, behorrentzat. Aurtengo udan bertan, honako behorrok (ikus argazkia) oso jokabide jakina hartu dute: goizaldera zelaian belarra jaten zuten. Goiz erdian berriz, bero zakarra gerturatzean, Aierdiko egilehorrera joaten ziren, egunaren ordu beroak gerizpean pasatzera.

Baina abereak ibiltze hau, oso garrantzitsua da nekazal ekonomia tradizionalean. Izan ere, eraikuntza hauek abere ezberdinen simaurraz (azken hamarkadetan batez ere ardi eta behorrenaz) bete ohi ziren. Horrela, Olazar baserritik urtero egiten zen biajea Aierdiko egilehorrera simaur bila: XX mendearen hasierako hamarkadetan egilehor honetatik dozena erdi bat simaur zarekada ateratzen zen[6].

Gipuzkoako lurrean etengabeko nekazaritza izan da mendeetan zehar, Gaztelako "barbecho" sistema ezagutu gabe, Larramendik esaten duen gisan, baina era berean, ondo azpimarratzen ditu hori lortzeko baserritarrak lurrari ematen dizkion laguntzak: simaurra, orbela, karea...[7].

Larramendiren garaian ez ezik, XX mendearen lehen partean ere simaurra estimazio handiko gauza zen. "Atzoko Zegama" liburuan, Urbiatik Zegamara astoz egindako simaur garraioa aipatzen da[8]. Zegamako kultura tradizionalean, Zegamako lur goseen aipamenik ere bada[9]. Goierritik kanpora aterata ere, simaurraren erabilpenaren antzerako kasuak ia edonon aurki daitezke[10].

Testuinguru orokor hau gogoan izanda, lehen mailako abantaila zen simaur ekoizpen hauek *baserriari berari lotutako jabetza batean izatea*. Baina egilehorrak, estalpe eta simaur-biltegiz gain, zeozer gehiago ere izan dira: espazioa antolatzeko tresna izan dira[11]. Izan ere, egilehorra zelai-sail batetan kokatu ohi da. Zelai honen ustiakuntza sakonago bat ahalbidetzen zuen egilehorrak. Eta horren bidez, baserriarentzat lehengai iturria zen. Askoz zailagoa izango zatekeen emaitza hauek lortzea egilehor gabeko zelaietan.

Horregatik ez gaitu harritu behar 500-900 metro inguruko muino, mendi eta hegaletan agertzen den egilehor ugaritasunak. Eremu hauek nekazaritzarako garai samarrak ziren; halako eremu goitiarrak miseria-garaietan landu dira, baina gurean "salbuespeneko egoera" bat izan dira[12]. Bestetik, ez dugu ahaztu behar 500-900 metroko eremu honetan "erdi garaierako artzaintza" egin izan dela, edo beste era batera esanda, "baserritarren artzaintza"[13].

"Artzainen artzaintzarekin" alde ederrak ditu beronek. "Baserritarren artzaintza" baserritarrek egin dute, hau da, *bizibidez artzain ez den* giza-talde batek. Artaldeak artzainenak baino txikiagoak dira, eta horrela, mendi eremu txikiagoetan mantendu daitezke. Era berean, negualdietan ez daukate kanpora irten beharrik[14], goiko testigantzan ikusi dugunez egilehorrean bertan ere molda zitezkeen artalde txiki hauek.

Esan behar da, "baserritarren artzaintza" honetako eraikuntza garrantzitsuena egilehorra izan dela. Bestaldera berriz, "artzainen artzaintzan" ez da agertzen egilehorrik[15]. Normala da, izan ere hemen agertzen diren artaldeen tamainak, parajeen izaerak eta ustiapenak bestelakoak dira.

Saietera, Antxerdi (Antxigardi) parajeko egilehorretako batean. (AA, 2012-06-03)

"*Artxarea*", Legazpiko egilehor batean. (AA, 2008-02-24)

Aierdiko egilehorreko zorua, simaurrez betea. (AA, 2007-02-23)

Maratila, Antxerdi (Antxigardi) parajeko egilehorretako batean. (AA, 2005-04-30)

Forma eta xehetasun arkitektonikoak: eremu aberatsa

Lantxo honen mugak erabat pasatzen ditu egilehorren arkitekturaren nondik-norako guztiak aztertzeak. Gure jarduna, bakar-bakarrik, kontu batzuk aipatzera mugatuko da. Legazpiko egilehorren gainbegirada arin bat eginda ere, segituan jabetuko gara bertan agertzen diren forma, tamaina eta elementuak oso anitzak direla. Horren arrazoi izan daiteke kronologia, autore, lehengai... ezberdinetakoak izatea.

Guk, bizkor-bizkor, ezaugarri batzuk aipatuko ditugu:

- Material aldetik, lekuan-lekuko harri mota erabiltzeko joera agertzen du egilehorrak. Horregatik, eraikuntza hauetako asko hareharrizkoak dira.
- Erabilitako hargintza era ezberdinetakoa izaten da[16]. Batzutan hargintza eredu oso landuak ikusiko ditugu, erregulartasun handikoak. Bestetan aldiz, lanketa irregularragoa erabili izan da.
- Lau aldeko eraikuntza izan ohi da egilehorra, gela bakarrekoa, gehienetan oin laukiluzea izanda. Arruntak ez badira ere, inoiz agertzen dira gela bat baino gehiagoko egilehorrak. Hauetakoak, askotan, egilehorrari *geroztik* egindako osagarri bat izan ohi dira. Akaso, egilehorretik baserrirako bilakaeran *tarteko pausua* izan daiteke handitze hau.
- Teilatua gehienetan bi isurikoa izan da. Agertzen dira, oso tarteka, isuri bakarreko teilatuak. Hauek batez ere malda handiko eremuetan agertzen dira. Isuri bakarreko eraikuntzak besteak baino sinpleagoak (eta hortaz eraiki errazagoak) dira, baina hauen barneko leku aprobetxamendua ez da hain ona.
- Gure inguruko eraikuntza ia denek teilazko teilatua dute. Baina dirudienez, teila nahiko berria da. Bestetik, teilatua eusteko zurajea ere aipagarria izaten da. Inoiz egurrezko zutabeak ere agertzen dira zurajearen sendogarri.
- Kasu batzutan sabaia agertzen da. Bertan gorde ohi ziren abereentzako zuhaitz-adarrak (lizarrarena batez ere) eta belar ondua. Egilehor sabaidunetan, askotan, sabaiak berak leiho handi bat izan ohi du, belarra bertara zuzen-zuzen sartzeko.
- Sarrera bakarra izaten da kasu gehienetan, batzutan ateduna, bestetan ate gabea. Zenbait egilehorretan ordea bigarren sarrera ere izaten da.
- Leihoak eta saieterak maiz agertzen dira egilehorretan. Ardi-sarrerak berriz gutxiago.
- Metalezko atal gutxi izan ohi ditu egilehorrak. Guk ikusi ditugun apurrak ateen heldulekuak eta leihoetako barroteak dira.
- Egilehorren barruko tresneria: Egilehor batzuen barrualdean "*artxarak*" aurkitzen dira, hau da, ganaduak belarra jateko egokitutako zurezko egiturak.
- Inguruak: Egilehorraren ikerketa ezin daiteke osatua izan, bere ondoan agertu ohi diren elementuak ahaztuta. Batzutan gertatu ohi da eskorta bat izatea egilehorraren ondoan, baina honek –gure inguruan behintzat- ez du oso arrunta ematen. Bestetan aldiz, lizar zuhaitz ederrak agertzen dira egilehor ondoan. Kasu honetan, lizar-adarrak ebaki egin ohi ziren, neguan abereei emateko.

Osatzeko zera esan daiteke: badirela egilehorren antzeko eraikuntzak, baina egilehorrak ez direnak. Askotan baserriaren ondoan izan ohi dira "atxikitako eraikuntzak", formaz egilehorren antzerakoak, baina egilehorren funtziorik betetzen ez dutenak, ez helburu mailan, ezta espazio antolamendu mailan.

Ardi sarrera, Otañu aldeko egilehor batean. (AA, 2004-04-14)

Hargintza lan irregularra, Otañu aldeko egilehor batean. (AA, 2011-04-02)

Zuraje zati ederra, Berastegiko egilehor batean. (AA, 2006-12-22)

Arbel hargintza, Itsasoko egilehor batean. (AA, 2007-05-20)

Egilehor moduko eraikuntza bikoitza, Lazkaoko paraje batean. Bazitekeen hasiera batean egilehor huts izatea, baina gero bere forma eta funtzioak aldatu egin dira. (AA, 2009-08-11)

Harlauzazko teilatua, Mendaur aldeko egilehor batean. (AA, 2009-03-19)

Legazpi eta inguruetatik kanpora

Legazpi eta inguruetako aberastasun arkitektoniko hau oso handia bada ere, gure ingurutik ateratzen bagara, hare eta handiagoa bihurtzen da. Normala da: zabalagoa den eremu batera jotzen badugu egilehorren aniztasunaren arrazoiak ugaritu eta sakondu egiten dira. Baina ez dugu gai honetaz ezer handirik esango, nahikoa izango da ezarritako argazkiak ikustea.

Ondorioak eta gogoetak

Egilehorren gaira diskurtso historikorik gabe gerturatzea, gure kasuan egin den bezala, oso ariketa mugatua da. Izan ere, etnografia formal eta deskriptibo batean geratzeko arriskua izaten da; nolabait esanda, "gauza baten dekribapen ahistoriko" soila egitea. Baina errealitatea beti konplexuagoa izaten da.

Horrela, fenomeno honen aberastasun formala ikusi dugu, bai Legazpiko eremuan, baita ere bertatik kanpora. Beste era batera esanda, horrelako aniztasun arkitektonikoa sortzeko, zalantza gabe faktore naturalak gogoan izan behar dira (lehengaiak...), baina baita ere giza faktorea. Izan ere, kronologia, egile eta betebehar ekonomiko ezberdinek sortu dute horrelako arkitektura aberats eta anitza.

Honekin adierazten dena gauza argia da: asko ikertu behar dela egilehorren gainean. Oraingoz egin dena oso urria da: benetako "*terra incognita*" baten aurrean gaude. Bestetik, mendietako zelaiak duela hamarkada batzutatik hona pinudi bihurtuak dira. Horrela, orain egilehor asko basoen erdian daude. Hainbat egilehor galdu egin dira eta beste asko galbidean daude. Zeozer pentsatu beharko da, hau ere herri-ondarea da-eta.

Aitor Azpiazu

Bibliografia

Erabilitako bibliografia hauxe izan da:

ARIN DORRONSORO, JUAN

1956. *Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun (II parte)*. In "*Anuario de Eusko Folklore*", 16 alea. Donostia. Aranzadi zientzia elkartea.

AZPIAZU UGALDE, AITOR

2006. *Zikirio landarea Aizkorrondoan*. In "Txinpartak", 12 alea. Legazpi. Burdinola.

2009. *Gipuzkoako Hegoaldeko Euskara. Brinkolan jasotako lexikoa eta etnografia gaiak*. Legazpi. Burdinola.

2010. *Aizkorrondoko artzainak Bizkaian*. In "Txinpartak", 21 alea. Legazpi. Burdinola.

AZURMENDI, XABIER

1996. *Atzoko Zegama*. Donostia. Eusko Ikaskuntza.

BARANDIARAN, FELIPE

1955. *La vida pastoril en Brinkola y Telleriarte (Legazpia)*. In "*Anuario de Eusko Folklore*", 15 alea. Donostia. Aranzadi zientzia elkartea.

DUVERT, MICHEL

2008. *Voyage dans le Pays Basque des bordes*. Donostia. Elkar.

JIMENO ARANGUREN, ROLDÁN

2012. *La propiedad, uso y disfrute del Monte Limitaciones de Améscoa (1412-2012)*. In "*Conociendo el pasado (IV)*", (Koordinatzailea: Balbino García de Albizu). Lamiñarra. Iruñea.

LARRAMENDI, MANUEL

1982. *Corografía de Guipúzcoa*. (Telletxea Idigoras-en edizioa). Donostia. Larrun.

PÉREZ ÁLVAREZ, MARíA JOSÉ

1996. *La Montaña Noroccidental Leonesa en la Edad Moderna*. León. Universidad de León.

RODRÍGUEZ PASCUAL, MANUEL

2004. *La trashumancia. Cultura, cañadas y viajes*. León. Edilesa. (Lehen edizioa: 2001)

UGARTE, JOSE LUIS; ALZELAI, ESTEBAN; BELOKI, AGUSTIN

1994. *Telleriarte etxez etxe*. Legazpi. Legazpiko udala.

[1]Legazpin bereizketa hau egitea garrantzitsua da. Izan ere, Goierriko hainbat herritan “txabola” hitzarekin estalpe apalak ere aipatzen dira, inolaz ere bizileku izan ez direnak.
[2]AZPIAZU, A. 2009: 462.
[3]Agustina Aierbe. (Pagoeta Erdikoa, Ursuaran, 1923). Antonio Berasategik eta neuk egindako elkarrizketa: 2005-10-24.
[4]Fenomeno bera aipatzen da Lapurdi hegoaldean. DUVERT, M. 2008: 76-77.
[5]AZPIAZU, A. 2009: 441.
[6]AZPIAZU, A. 2009: 41.
[7]LARRAMENDI, M. 1982: 55, 57-58.
[8]AZURMENDI, X. 1996: 80.
[9]AZURMENDI, X. 1996: 177.
[10]Esate baterako, Ameskoako Limitazio deitutako herri lurretan, norberak balia zezakeen simaurra legez finkatua zegoen. (JIMENO ARANGUREN, R. 2012: 42)./ Euskal Herriaz kanpoko parajeetan ere, ganadu taldeak sortutako simaurra aberastasuntzat jo izan da. Leon-go trashumantzia artalde erraldoien joan-etorrietan, zenbait lurjabek artaldeak gaua eremu jakin batean pasatzea nahi izaten zuten, hura ongarritzeko. Ordainean artzainek saria izaten zuten. (RODRÍGUEZ PASCUAL, M. 2004: 199)
[11]Eta beharbada, arrazoi honengatik posible izan da, toki askotan, egilehorra ondoren baserri bilakatzea. Besteak beste, Ataunen (ARIN DORRONSORO, J. 1956: 107-1Lapurdi hegoaldean (DUVERT, M. 2008: 10, 123) ikertu da fenomeno hau. Izan ere, izenak askotan salatzen du: gure inguruko herrietan badira “Egilehor” eta “Saletxe” izeneko baserriak (Telleriarteko Saletxe baserriaren inguruan, ikus UGARTE, J.L; ALZELAI, E; BELOKI, A. 1994: 70). Hauetaz gain, noski, badira halako izenak ez dituzten baserriak, baina sortzez egilehor izan zirenak.
[12]Adibidez, Armuño mendian patata egin zen arrazionamendu garaian, hau da, 1936ko gerra ondoan. (AZPIAZU, A. 2009: 346)./ Zikirioa mendian egin zen baita ere, baina zikirio egiteak ez du hain “salbuespenekoa” ematen. Inondik ere, soro txikiak izango ziren, baina bere funtzio ekonomikoa betetzen zutenak. (ikus AZPIAZU, A. 2006). Euskal Herritik kanpora ere, mendi eremu komunaletan zikirioaren nekazaritza agertu da, beti mugatua, baina ukaezinezko garrantziarekin gizarte autarkikoetan. Testuinguru horretan sartu behar da, besteak beste, Leon-go mendi inguruetako “rozas” edo “bouzas” fenomenoa. (PÉREZ ÁLVAREZ, M.J. 1996: 70)
[13]Horretarako egoki askoak dira Felipe Barandiaranen hitzak: “*El lugar denominado Jandoain [...] Hasta ahí llegan, durante el verano, las ovejas a las que los labradores de Brinkola dejan libres para que se alimenten por los montes*”. (BARANDIARAN15), eta , F. 1955: 132)
[14]Legazpi eta inguruetatik negualdian kanpora joaten ziren artzainen (eta hauen gorabehera linguistikoen) berri izateko: ikus AZPIAZU, A. 2010.
[15]Goi eremuetako artzaintzan egilehorra ez da agertzen. (BARANDIARAN, F. 1955: 138)
[16]Hemen harginen lana aipatu behar da. Batzutan harginak bertakoak izan zitezkeen. Baita baserritar bera hargin ere, langintza honetarako behar adina abilezia izanez gero (adibidez, argazkiko Zepadiko egilehorraren handitzea, *Arrezal* baserriko gizonak berak egin zuen, Tiburtzio Beainek, egilehor jabe zenak). Baina kanpoko harginak ere gurean izan dira inoiz, batez ere, XX mendean zehar egilehor konponketa batzuk galiziar edo portugaldar jatorriko harginek egin izan dituzte. Azken jende honek euskal nekazal munduan izan duen funtzioa, ikerketa monografiko baterako gaia litzateke.

FE DE ERRATAS

Txinparta Nº 23.

Artículo: “Correcciones y añadidos al libro Legazpi 1936”.
Página 19.– En la página 176 del libro menciona a Julián Garate Albizu como prisionero, realmente no estuvo preso.
Página 20.- En el apartado de muertos tras pasar por las prisiones. Hay que añadir que Antonio Urzelai Gabiria, estuvo destinado en **”Defensa anti-gas”.**

Txinparta Nº 24.

Artículo: “La represión en Legazpi antes de la guerra”
Página 29.- Donde pone **“ambos eran soberanistas, solo aceptaban el folklore típico,”** debe que poner **“ambos eran anti-independentistas, solo aceptaban el folklore típico vasco,”**
Página 30.– Donde pone **“los represaliados nacionalistas lo fueron por su actividad política”.** Debe de poner **“los represaliados nacionalistas vascos lo fueron por su actividad política y se les acusó de delitos como insulto e injurias al ejército, policía o autoridades, pintadas y colocación de símbolos prohibidos (carteles e ikurriñas), actos de sabotajes, acudir a manifestaciones, utilización de propaganda ilegal…, también sufrieron clausura de centros políticos y cierres de periódicos”.**
Donde pone **“Su presidente era Elías Gallastegi y la sede principal estaba en Bilbo”.** Debe de ser **“La sede principal se encontraba en Bilbo, su presidente era Elías Gallastegi y el principal abogado de los represaliados vascos fue Juan Antonio Kareaga”.**
Hay que indicar que a los presos vascos se les denominaba **“patriotas presos”.**

Arg: Julen Auzmendi

Detalle de la puerta de entrada, en madera tallada, de Aguirre-Echeverri.

LA CASA AGUIRRE-ECHEVERRI

La casa Aguirre-Echeverri ha sido la vivienda familiar de Patricio Echeverria, está emplazada en la calle Urola y fue su morada desde 1924 hasta 1972 (año de su fallecimiento). Aguirre-Echeverri es un claro ejemplo de las construcciones de estilo neovasco que se edificaron durante la primera mitad del siglo XX por todo el País Vasco.

Patricio es hijo de Miguel Ignacio Echeverria Apaolaza y Agapita Elorza Olaverria y nació en la célebre casa denominada Azpiko Etxe. Esta primera casa en la que habitó fue arrendada por su padre, por mil reales de renta anual.

El 16 de octubre de 1906 contrajo matrimonio con Teresa Aguirre que provenía del caserío Igaralde, de Brinkola. Una vez casados, se instalaron en una casa de Kale Zaharra, actual Nafarroa kalea nº17[1]. Allí nacieron sus tres primeros hijos. Después en 1911 se trasladaron a Patrizio-enea[2], más tarde conocida con el nombre de Pío-enea.

Impulsor de la industrialización en Legazpi, es de reseñar que inició su andadura trabajando como herrero. En 1908 dio sus primeros pasos como empresario fundando la fábrica de herramientas *Segura-Echeverría y Cía*, junto con tres nuevos socios[3], dedicada a la fabricación de herramientas de uso agrícola, útiles para minería, carpintería y cantería.

Años más tarde, concretamente en 1918 se disuelve la sociedad y en 1919 prosiguió él solo al frente, asentando las bases de lo que años más tarde sería la empresa más importante de Legazpi y una de las más significativas de Gipuzkoa. Cabe destacar que una de las causas para que su negocio adquiriera dicho renombre, fue que en 1931 empezó a elaborar sus herramientas con acero propio. Se convirtió en una corporación donde se realizaba todo el proceso de fabricación, desde la fundición hasta la elaboración de la herramienta.

Patricio Echeverria fue un hombre importante en el municipio ya que con sus aportaciones económicas contribuyó a que la villa mejorase, dotando al pueblo de diversos servicios, infraestructuras y trabajo. Por tanto, este personaje, en su momento, tuvo una gran influencia en la sociedad legazpiarra. Por otro lado, no solo tuvo un papel importante en la configuración urbanística del municipio sino que, con la construcción de su casa, fue uno de los pioneros en adoptar el estilo neovasco para su vivienda.

El estilo regionalista en Gipuzkoa.

Hay que destacar que tal y como se estaba gestando en Europa, a Euskadi también llegó el regionalismo a principios del siglo XX, dado que durante la década de 1910 en la arquitectura española se abrió paso a dicho estilo.

Después del *VI Congreso Nacional de Arquitectos*, celebrado en 1915, en San Sebastián, los referentes constructivos ya no se buscaron en lo exótico o en lo ecléctico, sino en las tradiciones locales. Lo que primaba, ante todo, era recuperar la imagen del caserío vasco, prototipo del gusto que siempre ha existido en Euskadi por lo tradicional. Se quería acabar con los extranjerismos, por lo que se comenzaron a recuperar elementos arquitectónicos de tradición local.

Arg: Mertxe Urkiola

Fachada principal de la casa Aguirre-Echeverri.

Adquirido el nuevo estilo, denominado neovasco, uno de los primeros edificios que tomó esta tipología fue la casa del pintor Zuloaga, aunque el estilo estaba todavía por definir. Una característica destacable es que el desarrollo del estilo regional vasco se difundió, principalmente, por la influencia del país vasco-francés. Según afirma Yrizar, en 1887 Henry Oshea animaba a los constructores a edificar inspirándose en las típicas casas, adaptándolas a las necesidades del día[4]. Por ello, comenzaron a erigir las primeras casas vasco-francesas en Biarritz y San Juan de Luz. Por fin, en la década de los años 20 maduró como estilo, por lo que esas nuevas construcciones se adaptaron a las exigencias de la sociedad moderna. Así los arquitectos de la época unieron el espíritu tradicional con las nuevas técnicas constructivas.

Cabe destacar que en 1920 y 1924 aparecen dos obras de suma importancia en Gipuzkoa que revelaron el tipo de referencia para el neovasco, estas fueron, Villa María Luisa, en Irun, construida por Luis Vallet, y la casa que estamos analizando, realizada para Patricio Echeverria[5]. Es de recalcar que muchos industriales, como éstos, adoptaron las nuevas formas arquitectónicas para sus casas, por lo que el estilo neovasco se extendió por todo el territorio.

La casa Aguirre-Echeverri fue construida en 1924 por el arquitecto Guillermo Eizaguirre[6]. No existe documentación específica sobre la construcción de la misma pero en el padrón municipal de dicho año se menciona la casa[7], por lo que queda patente que en dicho año ya estaba edificada y que la familia vivía allí.

El arquitecto Eizaguirre era de Tolosa por lo que trabajó por todo el territorio guipuzcoano. La determinación de éste a optar por la carrera de arquitectura puede que fuera debido a que su padre, Julián Eizaguirre Garmendia, era maestro de obras. Fue uno de los promotores de la introducción de una arquitectura inspirada en la estructura y formas vascas[8].

Durante los años cincuenta y sesenta del siglo XX, se dieron diversos cambios en la casa, como la ampliación de la fachada sur y varias remodelaciones que se encargaron al arquitecto Luis Astiazaran. Este arquitecto, de origen ma-

Arg: Julen Auzmendi

Galería, situada en la parte posterior de la casa.

Arg: Julen Auzmendi

Cuarto de baño.

drileño y padres guipuzcoanos, también tuvo una importante proyección en Gipuzkoa. Su obra fue solicitada por una clientela diversa, pero sobre todo por muchos industriales para los que construyó tanto fábricas como viviendas. Por lo que no es difícil pensar en la relación que Patricio pudo tener con dicho arquitecto y porqué le encargó las obras de su vivienda. Asimismo es importante subrayar que Astiazaran realizó varios proyectos muy conocidos en Legazpi, tanto para él como para otras personalidades del municipio así como para el Ayuntamiento[9].

En relación con la casa que nos atañe, es una vivienda de promoción privada, una gran residencia unifamiliar sita en una extensa parcela ajardinada. En definitiva, un chalé que se integró un una zona urbana que no se hallaba muy habitada.

La arquitectura de este edificio proviene, principalmente, de la evolución del caserío tradicional hacia formas más modernas. Se utilizaron formas constructivas de la arquitectura propia del caserío, adaptando las plantas a las necesidades de la época.

Aguirre-Echeverri, descripción de sus elementos.
Se denomina casa Aguirre-Echeverri, ya que ambos apellidos aparecen a los dos lados de la puerta de acceso. En general, es una edificación de dimensiones amplias y espaciosas, aunque con poca decoración dado que la arquitectura de Euskadi nunca ha sido suntuosa. En ella es primordial el uso de nuevos materiales como el hierro, el vidrio o los referentes a la higiene, como los sistemas de canalización interiores. Ejemplo de ello son los inmensos ventanales de las fachadas, así como el enrejado de la parte posterior, y, por supuesto, dos magnificas vidrieras que encontramos en el interior; una se sitúa en la capilla y aparte de motivos geométricos, como es lógico, nos muestra una cruz. La otra, se halla en la subida por la escalera y representa un escudo heráldico.

Es un edificio de estructura pétrea, planta rectangular y tejado asimétrico a dos aguas. La vivienda consta de tres plantas, un sótano y un inmenso jardín, con variedad de árboles. La fachada principal y la posterior nos recuerdan la recreación del caserío, pero con innumerables detalles que se acercan al eclecticismo y con una excesiva mezcla de materiales. Se utiliza el entramado, elemento retomado de nuestros caseríos, cuyo carácter es simplemente decorativo. Cabe destacar que la utilización del entramado cromático se inspira en las casas del País vasco-francés.

La planta baja se separa del resto por una línea de imposta y se compone mediante sillares irregulares. La segunda planta está raseada. Finalmente, el frontón está decorado con entramado vertical y mampostería. Un gran alero con ménsulas de madera remata el edificio. Asimismo, la planta baja se estructura mediante vanos de medio punto y un gran mirador. En la fachada principal hay que destacar el gran arco ojival situado a la izquierda del edificio y cuyas dimensiones toman dos pisos de la casa. Este tipo de arcos apuntados, en cuyo interior se resguardan los vanos, nos traen a la mente las galerías de arcos corridos que son características de los palacios de época renacentista[10].

En esta fachada se incorpora una novedad arquitectónica y singular, esto es, la escalinata de acceso. Se accede a la vivienda a través de una escalinata que termina en terraza. El acceso al interior de la vivienda no se encuentra en el centro del edificio sino en la parte izquierda, bajo un arco de medio punto cuyas dovelas superiores son de ladrillo, el mismo tipo de arcos también aparecen en la parte derecha del edificio.

Arg: Ana Peña
Fachada posterior de la casa Aguirre-Echeverri.

La fachada posterior se estructura de manera parecida a la descrita pero en este caso consta de un porche cuya entrada se estructura mediante un arco carpanel, en cuya parte superior se asienta una gran balconada. Aquí también hay que destacar las maravillosas rejas de hierro, manufacturadas, seguramente, en la fábrica del dueño, que están circunscritas en una galería de arcos de medio punto. En este caso la imposta de la parte baja desaparece, aunque el primer piso también se estructura mediante sillares irregulares, el resto del edificio está raseado.

Analizando el interior de la construcción, el elemento más importante, debido a que ya no hay mobiliario, es la utilización de maderas nobles, las puertas de factura impecable se articulan mediante este material. Además, una vez dentro, la majestuosa escalera de madera es el elemento que más llama la atención. Las paredes están forradas de tela y papel japonés y los suelos enmoquetados. El ascensor se construyó en 1966.

Finalmente, la planta baja consta de un hall, una capilla con sacristía, un inmenso comedor y la cocina, además de otras estancias. En la decoración hay que resaltar los azulejos del pavimento de la entrada con motivos geométricos y colores vistosos, así como la imagen del Sagrado Corazón de Jesús, que también en azulejo, da la bienvenida al penetrar a la vivienda.

Además el salón, cuyo mirador se halla en el centro de la fachada principal, se estructura mediante arcos de escayola, los cuales tienen motivos decorativos que recuerdan a los utilizados en los palacios de época renacentista. Igualmente hay que resaltar la chimenea que se sitúa en el comedor principal, está realizada mediante azulejos y en ella aparece el escudo de la familia Echeverria.

En la primera planta hay cuatro dormitorios y cuatro cuartos de baño, el salón, la biblioteca y un despacho. La re-

Arg: Gorka Salmerón

Escritorios abatibles junto a las ventanas, para un mejor aprovechamiento de la luz natural.

Arg: Julen Auzmendi

Sala de estar. Mobiliario colocado por el Ayuntamiento, los días de puertas abiertas, con el fin de recoger sugerencias sobre el destino de la casa.

modelación más destacable de la casa se ejecutó en esta planta, es la terraza que había en el lado derecho de la casa que fue convertida en sala cubierta. En ella destacan los grandes ventanales, donde la calidez de la luz que penetra deslumbra inconmensurablemente.

Por último la segunda planta tiene tres habitaciones para el servicio, un baño, un ropero, dos camarotes, donde se asientan las calderas, y otra galería de grandes ventanales. El sótano tiene, principalmente, una bodega y la lavandería, además dispone de un inmenso espacio para tender la ropa.

Como anécdota en el ornato no hay que obviar la veleta forjada ubicada en el tejado del edificio la cual tiene una gran bellota, símbolo de la fábrica que dio grandeza a la familia que habitó esta casa.

Conclusión.

Actualmente este edificio es de propiedad municipal debido a que el 7 de febrero de 2011 se entregaron las llaves al ayuntamiento. En definitiva, la casa es la imagen del confort y la prosperidad que tenía Patricio Echeverria en el municipio, por ello es una de las casas más relevantes y vistosas de la villa.

Del mismo modo, se ha visto como el estilo neovasco fue una forma arquitectónica derivada del caserío, pero adaptada a las nuevas funciones de una casa moderna, esto es; el efecto moderno está más presente en la disposición interior que en las formas exteriores, además hay que resaltar la mezcla de materiales.

Arg: Julen Auzmendi

Veleta de la casa Aguirre-Echeverri.

Por último, teniendo en cuenta que la casa ha sufrido diferentes cambios, es significativo concluir que ha sido una vivienda en permanente evolución. Únicamente, en estos momentos, queda decidir cuál será su próxima función, sólo es de esperar que este retazo de la historia arquitectónica de Legazpi se conserve en toda su plenitud y que todos los habitantes del municipio puedan disfrutar de ella.

Ana Peña

[1]BELDARRAIN SOLATXI, I. (2010): Patricio Echeverria: su tiempo, su obra y trayectoria vital, Legazpi; Iñaki Beldarrain. p. 56.
[2]En el padrón de 1924 del municipio de Legazpi la casa Aguirre-Echeverri aparece con el nombre de Patricionea. En A.M.L C/ 77-2.
[3]Prudencio Guereta, Pedro Segura y Romualdo Echeverria.
[4]YRIZAR, J. (1929): *Las casas Vascas: torres, palacios, caseríos, chalets, mobiliario,* San Sebastián; Librería Internacional. p. 106.
[5]VVAA (2004): Gipuzkoa: Guía de Arquitectura (1850-1960), San Sebastián; Diputación Foral de Gipuzkoa. p-69-70.
[6]VVAA (2008): "Ehun urteko historia. Centenario de Pesa", *Txinpartak* nº15, Legazpi, Burdinola. p.11.
[7]En ella vivían Patricio Echeverria, Teresa Aguirre, su mujer, y sus hijos, Lorenza, José, Juana, Cruz, Felisa, Patricio y Román. En A.M.L C/ 77-2.
[8]ORDÓÑEZ VICENTE, M.(2001): "Guillermo Eizaguirre Ayestarán. Arquitecto (1878-1932), *Ondare: cuadernos de artes plásticas y monumentales nº 20, Donostia; Eusko ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos*, p. 181.
[9]En Legazpi Astiazaran realizó el proyecto de una nueva vía en 1930, por la que se abre la calle Nueva, hoy Nagusia. En 1931 junto con el arquitecto Damián Lizaur redactó las Ordenanzas de Construcción de la villa. Para Patricio ejecutó, entre otros proyectos, el chalet de los ingenieros de Idiazabal, y las casas para obreros del barrio de San Juan.
[10]ZALDUA GOENA, J. (2006): "Una aproximación al estudio de la arquitectura regionalista en Guipúzcoa", *Revisión del arte vasco entre 1939-1975. Ondare: cuadernos de artes plásticas y monumentales nº25, Donostia; Eusko ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos*, p. 201.

Bibliografía:

BELDARRAIN SOLATXI, I. (2010): Patricio Echeverria: su tiempo, su obra y trayectoria vital, Legazpi; Iñaki Beldarrain.
IBÁÑEZ, M.; TORRECILLA, M.J.; ZABALA, M. (2001): Burdinaren Industria. Bertan nº 16, Donostia; Gipuzkoako Foru Aldundia.
